

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ASEGURU-ARTEKARIEN ETA LOTUTAKO ASEGURU-AGENTEEN URTEKO ESTADISTIKA-KONTABILITATEKO DOKUMENTAZIOA

URTEKO EKDARI BURUZKO EREDUAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK ETA DEFINIZIOAK

1. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2021eko apirilaren 21ean argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (95), apirilaren 20ko 287/2021 Errege Dekretua, aseguru- eta berraseguru-banatzailleen estatistika- eta kontabilitate-informazioa prestatu eta bidaltzeari buruzkoa; horren bidez, erregistro-liburuei eta estatistika- eta kontabilitate-informazioari buruzko araudia garatzen da, otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren liburuko I. tituluan xedatutakoa garatzeko (3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak)

Apirilaren 20ko 287/2021 Errege Dekretuak berariaz indargabetzen du ekainaren 11ko 764/2010 Errege Dekretua, aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legea garatzen duena estatistika- eta kontabilitate-informazioari, negozioari eta gaitasun profesionalari dagokienez. Dekretu horren 18. artikulua 3. atalean ezartzen denez, dokumentazioa elektronikoki aurkezteko formularioak Ministerio Digitalaren agindu bidez onartu eta aldatuko dira.

Azkenik, bigarren xedapen iragankorrak ezartzen du ekainaren 11ko 764/2010 Errege Dekretuaren 7. eta 9. artikuluetan ezarritako ereduak aplikatuko direla harik eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioaren titularraren agindu bidez onartzen diren arte aseguru-artekarien, berraseguru-artekarien, lotutako aseguru-agenteen eta banka-aseguruen operadoreen estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa bidaltzeko ereduak. (Irailaren 15eko EHA/2513/2011 Aginduan zehaztutakoak. Agindu horren bidez aldatu zen uztailaren 5eko EHA/1803/2010 Agindua, Estatuko Aldizkari Ofizialeko aseguru- eta berraseguru-artekarien urteko eta sei hileko estatistika- eta kontabilitate-informazioaren ereduak aldatzen dituena. 2011ko irailaren 23koa, 229. zk.).

<https://www.euskadi.eus/informacion/aseguru-artekarien-erregistroa/web01-a2finan/eu/>

Horri dagokionez, aipatutako webgunean jasotzen da aseguru-artekariak eta berraseguru-artekariak deskargatu eta Finantza Politikako Zuzendaritzara bidali behar duten urteko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa.

Era berean, bertan dago lotutakoks aseguru-agenteei Finantza Politikako Zuzendaritzara bidali behar duten urteko kontabilitate- eta negozio-dokumentazioa.

2. ARGIBIDE OROKORRAK

- **Ekitaldi ekonomikoa** bat dator urte naturalarekin.

- Urteko estatistika- eta kontabilitate-informazio hau **bidali behar dute** aseguru-artekariak, berraseguru-artekariak eta lotutako aseguru-agenteeak Banaketa-jardueraz baliatu diren aldiei dagokienez, kontuan izan gabe noiz baliogabetu den inskripzioa Finantza Politikako Zuzendaritzak daraman aseguruaren eta berraseguruaren banatzaileen Euskadiko administrazio-erregistroan. Informazio honi dagokionez, Zuzendaritza horrek eskumena du jasotako dokumentazioari buruzko argibideak biltzeko.

- **Epea:** urteko EKD Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak horretarako adierazitako datetan bidaliko da, **www.euskadi.eus** webgunean.

- 1, 2.1, 2.2 eta 2.3 ereduak **estatistika-ereduak** dira eta 3.1, 3.2 eta 3.3 **kontabilitate-datuen ereduak** dira; beraz, kontzeptu berdinak, esaterako komisio eta ordainsariak, zenbateko bat izan dezakete estatistika-ereduetan eta beste bat kontabilitate-ereduetan. Dena den, EKD tentuz bete beharko da, kontzeptu berdinari dagozkion zenbatekoak zifra berdinarekin adieraz daitezten, aipatutako EKD osatzen duten ereduetan.

- **Jakinarazten dizuegu daturik ez dagoen nahitaezko zenbakizko eremuetan zero (0) jarri beharko duzuela eta ezin duzuela hutsik utzi.**

Estatistika- eta kontabilitate-informazioa ez bidaltzea arau-hauste administratiboa izango da, otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 192.2.r) eta 192.3.h) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik (3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, Europar Batasuneko zenbait zuzendaritza Espainiako ordenamendu juridikoan sartzekoa, sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren, aseguru pribatuen, pentsio-plan eta -funtzen, zerga-arlokoen eta auzien esparruan).

Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 192.2.r) artikulua ezartzen duenez, arau-hauste oso larritzat joko da "Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiari igorri beharreko datu edo agiri guztiak ez igortzea, horiek etengabe edo aldizka aurkeztuz edo banakako errekerimenduei erantzunez, bai eta egiazkoak ez izatea ere, horrekin egindako eragiketen irismena eta izaera hautematea zailtzen denean. Igorri ez dela ulertuko da Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiak horretarako emandako epearen barruan egiten ez denean, betebeharra idatziz gogoraraztean edo banakako errekerimendua errepikatzean".

Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 192.3.h) artikulua ezartzen duenez, arau-hauste larritzat joko da "finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiari igorri beharreko datu edo dokumentu guztiak ez igortzea, behin betiko edo aldizka aurkeztuz edo banakako errekerimenduei erantzunez, edo egiazkoak ez izatea, salbu eta horrek 2. paragrafoko r) idatz-zatiaren arabera arau-hauste oso larria egitea badakar. H) idatz-zati honen ondorioetarako, bidalketa falta dagoela ulertuko da Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiak horretarako emandako epearen barruan egiten ez denean, betebeharra idatziz gogoraraztean edo banakako errekerimendua errepikatzean".

- Ezer zehaztu ezean, eruedetan aipatzen diren artikulua otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuari buruzkoak dira.

3. ARGIBIDE ESPEZIFIKOAK

0.1 eredua soilik aplika daiteke pertsona fisikoen artekariari, F- baimen-gakoarekin gehi lau digitu eta segidan EUS.

Artekariaren datu profesionalak ditu eta aitortpena txertatzen du, eta jasota gelditzen da bidalitako datuek leialki jasotzen dutela urteko estatistika- eta kontabilitate-informazioa.

Halaber, aipatzen da dokumentu hauek erantsi behar direla:

- Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru-polizaren primaren ordainagiriaren jatorrizkoa edo fotokopia baimendua. Primaren ordainagiri horrek dagokion urteko aldiaren estaldura egiaztatu behar du. Halaber, honako dokumentu hauek eransteko betebeharra aipatzen du:

- Finantza-erakundeak emandako abalaren indarraldia egiaztatzen duen agiriaren edo kauzio-aseguruaren poliza-primaren egiaztagiriaren originala edo kopia baimendua, artekariak soilik kudeatzen badituzte aseguru-erakundeari prima ordaintzeko bezeroen funtsak edo aseguru-etxeek kalte-ordainengatik emandako kopuruak edo beren bezeroei zuzendutako primen errenboltsoak. Egiaztagiri horrek dagokion urteko aldiaren estaldura egiaztatu behar du.

0.2 eredua pertsona juridikoen aseguruaren artekaritza-sozietatei aplika daiteke J- baimen-gakoarekin gehi lau digitu eta jarraian EUS.

Artekaritza-sozietatearen datu profesionalak ditu eta aitortpena txertatzen du, eta jasota gelditzen da bidalitako datuek leialki jasotzen dutela urteko estatistika- eta kontabilitate-informazioa.

ERAKUNDEEN TALDEA izeneko atala bete beharko dute erakundeen talde batekoak diren aseguru edo berraseguruen artekaritza-sozietateek. Kontrola duen taldeari buruzko hainbat datu bete behar dira. Erakundearen kontrola duen taldeak joko da (EUROTASTen arabera) filial baten azken kontrola duen instituzio-unitatea (filial baten kontrol-kateko goi- muturrean dagoen instituzio-unitatea eta ez duena kontrolatzen beste instituzio-unitate batek).

GARRANTZITSUA: Legezko ordezkariak bat baino gehiago badira, 0.2 ereduaren inprimatu beharko dute, guztiek sinatu eta eskaneatuta erantsi beharko dute prozesuaren amaieran, zeren soilik horietako batek egin ahal izango du ordezkariaren telematikoa.

Hiru tauletako informazioak dagokion urteko aldiaren egoeraren berri eman beharko du.

Halaber, 0.2 ereduaren aipatzen da dokumentu hauek erantsi behar direla:

- Indarrean dagoen erantzukizun zibilaren aseguru-polizaren prima-ordainagiriaren originala edo kopia baimendua. Primaren ordainagiriak egiaztatatu beharko du dagokion urteko aldiaren estaldura.
- Finantza-erakundeak emandako abalaren indarraldia egiaztatzen duen agiriaren edo kaudio-aseguruen poliza-primaren egiaztapenaren originala edo kopia baimendua, artekariak soilik kudeatzen badituzte aseguru-erakundearen prima ordaintzeko bezeroen funtsak edo aseguru-etxeek kalte-ordainengatik emandako kopuruak edo beren bezeroei zuzendutako primen errenboltoak. Egiaztapen horrek egiaztatatu beharko du dagokion urteko aldiaren estaldura.

1 ereduaren erakundearen egiturari buruzkoa da.

- Eredu honetan eskatzen da baliabide pertsonalen hainbat kategoria zehaztea, aukera hauen artean:

«banaketa-jarduerari dagozkionak» eta «banaketa-jarduerari ez dagozkionak».

Aseguru edo berraseguru banatzaileek, banaketa-jardueraren egiteaz gain, bestelako jardueraren mota batzuk egiten baditu eta ezin badu banatu banakako erantzeren pertsona-kopurua baliabide pertsonalen hainbat kategoriatan, hau da, «banaketa-jarduerari dagozkionak» eta «banaketa-

jarduerari ez dagozkionak» kategorien artean, hiru egozpen-metodo hauetako bat erabili ahal izango du:

- Erakundearena berarena, arrazoizkoa, objektiboa, egiaztagarria eta denboran zehar egonkorra izan beharko duena.

- A metodoa (orduak), egozpen-koefiziente bat lortzean oinarritzen da, banatzaile gisa jardundako ordu-kopuruaren arabera. Koefizientea honela kalkulatu da: Banaketa-jardueran emandako ordu-kopurua/ordukopurua, guztira.

- B metodoa (zenbatekoak), egozpen-koefiziente bat lortzean oinarritzen da, banatzaile-jardueraren diru-sarreraren guztizko zenbatekoaren arabera. Koefizientea honela kalkulatu da: **banaketa-jardueraren diru-sarreraren zenbatekoa, guztira/diru-sarreraren zenbatekoa, guztira (jarduera guztiena).**

"**Banaketa-jarduerari lotutako giza baliabideak**" dira banaketa-jarduera otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 129. artikuluan definitzen den moduan egiten duten pertsonak. Artikulu horren arabera, "Aseguru-banaketatzat hartuko da aseguru-kontratu bat egin aurreko aholkularitza-, proposamen- edo lan-jarduera oro, kontratu horiek izenpetzekoa edo kontratu horien kudeaketan eta gauzatzean laguntzekoa, ezbehar-kasuetan laguntza ematea barne. Bezeroek webgune baten edo beste bitarteko batzuen bidez hautatutako irizpideen arabera aseguru-kontratu bati edo batzuei buruzko informazioa ematea ere barne hartuko da, bai eta aseguru-produktuen sailkapen bat egitea ere, prezioak eta produktuen konparazioak barne, edo aseguruaren prezioaren gaineko deskontu bat, bezeroak zuzenean edo zeharka aseguru-kontratua webgune bat edo beste bitarteko batzuk erabiliz egin dezakeenean. 2. Berraseguruen banaketatzat hartuko da berraseguru-kontratuak egin aurreko aholkularitza-, proposamen- edo lan-jarduera oro, edo kontratu horien kudeaketan eta gauzatzean laguntzekoa, bereziki ezbeharren kasuan. Jarduera hori berraseguru-erakunde batek berraseguru-bitartekari baten esku-hartzerik gabe garatzen duenean ere sartuko da".

- Aseguru edo berraseguru banatzaile-jarduerari dagozkion baliabide pertsonalei dagokienez, langileak lau talde edo kategoriatan banatu dira:

- Zuzendaritza-organoa
- Langileak
- Laguntzaileak
- Bestelako langileak

Talde edo kategoria bakoitzean hau eskatzen da: talde edo kategoria bakoitzeko pertsona-kopurua; horien guztien aurretiazko prestakuntza (Prestakuntza, 1. maila, 2. maila edo 3. Maila

(Aintzinako A, B edo C taldeen prestakuntza), apirilaren 20ko 287/2021 Errege Dekretuan ezarritako mailen arabera); jaso duten etengabeko prestakuntza, eta zehaztu egingo dira jasotako prestakuntza mota edo motak (oinarrizkoa, berritzea, aseguru-enpresen kudeaketa eta administrazioa, adar eta/edo produktu zehatzei buruzkoa); eta etengabeko prestakuntzan erabilitako baliabideak barnekoak eta/edo kanpokoak izan diren; eta gastua.

Zuzendaritza-organoa: banaketaren ardura duten zuzendaritza teknikoa eta zuzendaritzako beste kargu batzuk betetzen dituzten pertsonak, administrazio-organoko kide izan ala ez. Zuzendaritza-eginkizunik betetzen ez duen administrazio-kontseiluko kide bat ez litzateke epigrafe honetan sartuko. Pertsona fisikoen kasuan, gutxienez aseguru- edo berraseguru-artekaria bera zuzendaritzako langileztat hartu behar da. Pertsona juridikoen kasuan, banaketa-jardueraren ardura duen zuzendaritza-organoko kideen erdiek gutxienez eta aseguru-enpresen banaketan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiek egiaztatu beharko dute ezagutza eta gaitasun egokiak dituztela, prestakuntza-ikastaroak gaindituz, otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan eta hura garatzeko araudian (1. Maila: Antzinako A taldea) aurreikusitakoaren arabera.

Langileak: Lan-kontratu bat duten pertsonak.

Laguntzaileak: Aseguru- berraseguru-artekaritzaren kanpoko banaketa-sarea osatzen duten kanpoko laguntzaileak. Kanpoko laguntzaileak beti izango dira «Aseguru eta berraseguru banatzaile-jarduerari dagozkionak».

Beste langile batzuk: Lan- edo merkataritza-kontraturik gabe funtzioak eskaintzen dituzten pertsonak (senideak, bazkideak, etab.).

Etengabeko prestakuntza-maila: X batekin adieraz daitezke, zenbait laukitxo edo guztiak, jasotako etengabeko prestakuntza-mailaren arabera:

1 –Oinarrizkoa

2 –Berritzea

3–Aseguru-enpresen artekaritza-enpresen kudeaketa eta administrazioa

4- Adar eta/edo produktu zehatzei buruzkoa

Etengabeko prestakuntza-orduak: Langileen talde edo kategoria bakoitzak jasotako prestakuntza-orduen kopurua, guztira. Adibidez, hiru langile bi orduko ikastaro batean izan badira, prestakuntza-orduak sei izango dira (langileko bakoitzeko bi ordu, bider hiru langile, guztira, sei ordu).

Etengabeko prestakuntzan erabilitako baliabideak: X batekin markatuko da dagokion zutabea, prestakuntza barneko edo kanpoko baliabideek eman duten kontuan hartuta:

1 – Barnekoak

2 – Kanpoko pertsonak edo zentroak

Halaber, kasua bada, bi laukitxoak adieraz daitezke.

Gastua etengabeko prestakuntzan: Ekitaldian zehar erabilitako aurrekontu-kopurua langileen talde edo kategoria bakoitzari etengabeko prestakuntza eskaintzeko. Gastu horren barnean, etengabeko prestakuntzako barne-kostuak, hau da, aseguru edo berraseguru banatzaileek egindako prestakuntza-ekintzen barne-kostua balioetsi eta sartu behar dira.

- **Egoitza profesional edo sozialari dagokionez**, hau adierazi behar da: egoitza hori erabiltzeko erregimena (jabetza, errentamendua edo lagapena); egoitza profesional edo sozialean lan egiten duen pertsona-kopurua, banaketa-jarduerari dagozkienak diren ala ez zehaztuz; eta bitarteko izanda egoitza horretan sortutako primen bolumena.

Egoitza profesionala edo soziala bakarra izango da, oro har, eta bat etorriko da zentroko administrazioa eta zuzendaritza edo bere establezimendu edo ustiapen nagusia dagoen tokiarekin.

Egoitza profesionala edo soziala erabiltzeko erregimena: Dagokion kodea adieraziko da, jabetzan, errentamenduan edo lagapenean erabiltzen dela kontuan izanda:

1– Jabetza

2– Errentamendua

3– Lagapena

Sukurtsalei dagokienez, probintzia bakoitzean hau adierazi behar da: bulego-kopurua; probintzia; bulegoetan lan egiten duen langile-kopurua, aseguru eta berraseguru banatzaile-jarduerari dagozkienak diren bereiziz; bitarteko izanda bulegoetan sortutako primen bolumena.

Soilik egoitza profesionala edo soziala badago eta ez badago bulegorik, sukurtsalen taula ez da bete behar. Jarduera hainbat lokaletan egiten bada, horietako bat eta bakarra izango da egoitza profesionala edo soziala, eta gainerakoak bulegoak edo sukurtsalak izango dira.

Bai egoitza profesional edo sozialaren datuen taulan bai sukurtsalen taulan, baliabide pertsonalak osatzen dituzten pertsonen baitan, kanpoan geldituko dira kanpoko laguntzaileak.

2.1 ereduan bitarteko izanda lortutako aseguru-zorroaren datu globalak daude, 2.2 eta 2.3 ereduetan zehazten direnak.

Zorroko datu globalak eskatzen dira hiru talde handitan banatuta:

- **Negozioaren bolumena, guztira:** bitarteko izanda sortutako primen zenbatekoa da, produkzio berria barne. Prima horiek polizei dagozkie (ekitaldian indarrean daude edo egon dira, ezeztapenetatik garbi daude). Ez dira sartuko berritu gabeko polizak. Adibidez: urtean zehar amaitzen diren baina berritzen ez diren urteko polizak, horiek aurreko ekitaldian kontabilizatu dira, ez dira kontabilizatzen ez badira berritzen. (artekari/artekaritza berdinarekin jarraitzen duten baina aseguru-etxea aldatzen duten auto-polizak, poliza ezeztatzean ez da zorroko poliza gisa kontabilizatzen, eta poliza berria egitean produkzio berrizat jotzen da).

- **Produkzio berria:** bitarteko izanda sortutako primen zenbatekoa da; prima horiek ekitaldian egin diren poliza berriei dagozkie.

Bai «negozioaren bolumena, guztira» bai «produkzio berria» atalean adierazi egin behar da zorroa aseguru-etxeen zein kopuru-tartetan dagoen kokatua, hau da, bete egin behar da zorroa kokatua dagoen erakunde-kopuruarekin bat egiten duen lerroa, eta lerro bat bakarrik; lerro hori tarte bat izan daiteke negozioaren guztizko bolumenarentzako eta beste bat desberdina produkzio berrirako. Jarraian, bi taldeetan (negozioaren bolumena, guztira; produkzio berria), bete beharreko eremuak hauek dira: bitarteko izanda sortutako primen zenbatekoa; bizitzari dagokion ehunekoak; ez-bizitzari dagokion ehunekoak; norbere saretik atzemandako zenbatekoa; kanpoko banaketa-saretik atzemandako primen zenbatekoa eta kobratutako primen zenbatekoa.

- **Negozioaren bolumena, guztira, aseguru-etxeen arabera:** bitarteko izanda polizei dagozkien sortutako primen zenbatekoa da, aseguru-bitartekaritzaren jarduera egin den aseguru-etxeen arabera. Poliza horiek, ezeztapenetatik garbi daude, ekitaldian indarrean daude edo egon dira, produkzio berria barne. Aseguru-etxeen gakoek aseguru-etxe guztiek Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru- eta berraseguru-erakundeen erregistro publikoko edo erregistro autonomikoetako inskripzioan dituzten berdinak izan behar dute.

Bitarteko izanda, primen bolumen handiena sortu zaien aseguru-etxeak beteko dira soilik.

Bitarteko izanda sortutako primatzat jotzen dira ekitaldian perfektionatu edo luzatutako kontratuei dagozkienak, ezeztapenetatik garbi daudenak eta aseguru-artekaria bitarteko izan dutenak (ez dira sartuko beste artekari baten zuzendaritzapean esku hartu duen artekariaren primak). Primatzat joko da merkataritza-prima, ezeztapenetatik garbi dagoena, errekarguak eta zergak alde batera utzita. Atal honetan poliza bakoitzaren urteko prima kontabilizatzen da, kontuan izan gabe zatikatua dagoen ala ez eta aldiak urte naturalarekin bat egiten ez duela alde batera utzita; horrela, primaren egiaztagiria produkzio berriko poliza bati edo berritzeari badagokio, abenduan jaulkitzen bada, urteko prima osoa ekitaldi horretan gehituko da, nahiz eta estaldura-aldiaren zati bat beste urte batekoa izan.

Bizitza %, Ez-bizitza %: Adierazi bitarteko izanda sortutako primen ehuneko-banaketa Bizitza edo Ez-bizitzaren arabera.

Norberaren sarea: Aseguru-/berraseguru-artekariaren berezko antolamenduaren egitura osatzen duten baliabideen bidez bildutako primak.

Kanpoko banaketa-sarea:

- Laguntzaileak: Artekariaren kanpoko laguntzaileen bidez bildutako primen zenbatekoa.
- Beste artekari batzuk: Beste artekari batzuen bidez bildutako primen zenbatekoa, izan pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta artekari horiek estatistika- eta kontabilitate-informazioa aurkezten duen artekariaren zuzendaritzapean eta ardurapean jarduten badute.

Norberaren sareak eta kanpoko banaketa-sareak atzemandako baturak bitarteko izanda sortutako primen zenbatekoaren berdina izan behar du.

Kobratutako primak

Kobratutako primetan bereizi egin behar da artekariak berehalako estaldura eskainiz edo berehalako estaldura eskaini gabe (kasu honetan, banku-abala edo kauzio-asegurua izango du) kobratutako primen artean. Artekariak ez baditu primak kobratzen, zeren kontratuan berariaz hitzartu da bezeroak ordaindutako zenbatekoak zuzenean ordainduko direla banku-helbideratzearen bidez aseguru-etxeen izenean irekitako kontuetan, ez da bete beharko kobratutako primen atala.

Azkenik, gogoratzen da «negozioaren bolumena, guztira» taulako «bitarteko izanda sortutako primak» eremuan idatzitako zenbatekoak eredu honen laukitxoan adierazitako zenbatekoaren berdina izan behar duela: 2.2 eredu / negozioaren bolumena, guztira / bitarteko izanda sortutako primak / EZ BIZITZA, GUZTIRA gehi eredu honetako laukitxoan adierazitako zenbatekoa: 2.3 eredu / negozioaren bolumena, guztira / bitarteko izanda sortutako primak / BIZITZA, GUZTIRA.

Era berean, «produkzio berria» taularen «bitarteko izanda sortutako primak» eremuan idatzitako zenbatekoak eredu honen laukitxoan adierazitako zenbatekoaren berdina izan behar du: 2.2 / produkzio berria / bitarteko izanda sortutako primak / EZ-BIZITZA, GUZTIRA gehi eredu honetako laukitxoan adierazitako zenbatekoa: 2.3 eredu / produkzio berria / bitarteko izanda sortutako primak / BIZITZA, GUZTIRA.

OSO GARRANTZITSUA: «Bitarteko izanda sortutako primak», «Bizitza %» eta «Ez- bizitza %» atalei dagozkien datuak autokalkulatzaren eremuak dira. Izan ere, 2.2 eta 2.3 ereduetatik lortzen dira; beraz, gomendatzen da 2.1 ereduaren betetzea 2.2 eta 2.3 ereduak bete ondoren.

2.2 ereduaren ez-bizitza zorroaren xehetasunak daude, adarka; negozioaren bolumena, guztira eta produkzio berria bereiziz.

Aseguru-etxe eta berraseguratzailen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen eranskinean zehaztuta daude adarrak. Halere, 2.2 ereduaren sailkapenak ez du jarraitzen korrelatiboki aipatutako eranskinean jasotako zenbaketa, baizik eta aseguru-etxeen estatistika- eta kontabilitate-deklarazioaren ereduetan erabiltzen den oso antzeko sailkapen bat jarraitzen da.

Poliza zehatz bat adar batean kokatzeko jarraitu behar den irizpidea aseguru-etxeak eskainiko du; izan ere, aseguru-etxeak kokatzen du produktu bakoitza adar batean edo bestean.

Erreferentzia gisa 2.2 ereduaren jasotako adarren xehakapenaren eta uztailaren 14ko 20/2015 Legearen (aseguru-etxe eta berraseguratzailen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa) eranskinean ezarritako adarren legezko definizioaren arteko baliokideen taula hau txertatu da.

<u>Ez-bizitza</u> <u>adarren</u>	<u>Adar-zk. uztailaren 14ko 20/2015</u>
<u>xehakapena 2.2 ereduaren</u>	<u>Legeko eranskinaren arabera.</u>
Istripuak	01.- Istripuak

Gaixotasuna	02.- Gaixotasuna
Osasun-laguntza	02.- Gaixotasuna
Mendekotasuna	02.- Gaixotasuna 00.- Bizitza (kasu honetan, 2.3 ereduan betetzen da)

Autoak	01.- Istripuak 03.- Lurreko ibilgailuak (tren-ibilgailuak kanpo) 10.- Erantzukizun zibila lurreko ibilgailu automobiletan
Garraioak	04.- Trenbide-ibilgailuak 05.- Aireko ibilgailuak 06.- Itsasoko, aintzirako eta ibaiko ibilgailuak 07.- Garraiatutako salgaiak 11.- Erantzukizun zibila aireko ibilgailuetan 12.- Erantzukizun zibila itsasoko, aintzirako eta ibaiko ibilgailuetan
Suteak eta elementu naturalak (2)	08.- Suteak eta elementu naturalak
Ondasunei eragindako beste kalte batzuk (3)	09.- Ondasunei eragindako beste kalte batzuk
EZ orokorrean	Arrisku nuklearrak
	Beste arrisku batzuk
Kreditua	14.- Kreditua
Kauzioa	15.- Kauzioa
Hainbat galera	16.- Askotariko diru-galerak
Defentsa juridikoa (4)	17.- Defentsa juridikoa
Laguntza	18.- Laguntza
Heriotzak	19.- Heriotzak
Etxeko arrisku anitza	08.- Suteak eta elementu naturalak 09.- Ondasunei eragindako beste kalte batzuk
Komunitateen arrisku anitza	08.- Suteak eta elementu naturalak 09.- Ondasunei eragindako beste kalte batzuk

Merkataritzen arrisku anitza	08.- Suteak eta elementu naturalak 09.- Ondasunei eragindako beste kalte batzuk 13.- Erantzukizun zibila
Industrien arrisku anitza	08.- Suteak eta elementu naturalak 09.- Ondasunei eragindako beste kalte batzuk 13.- Erantzukizun zibila

Beste arrisku anitz batzuk	08.- Suteak eta elementu naturalak 09.- Ondasunei eragindako beste kalte batzuk 13.- Erantzukizun zibila 16.- Askotariko diru-
----------------------------	---

- (1) Soilik autoen poliza batekin badago
- (2) Kalte material oro barne
- (3) Honela dago azpibanatua:
 - Nekazaritza-aseguru konbinatuak, soilik nekazaritza-aseguruak dituenak
 - Lapurreta edo beste batzuk, barnean sartzen dira lapurreta eta normalean hamar urterako eta eraikuntzako arrisku orotakoa, baita ondasunei beste kalte batzuk egitea ere, kanpoan gelditzen da makineriaren matxura
 - Makineriaren matxura, soilik makineriaren matxura sartzen da
- (4) Soilik autoetan sartzen ez direnak

2.2 eredu honetan bi zutabe handi daude: Negozioaren bolumena, guztira eta Produktzio berria; eta bi zutabe handi horien barnean beste lau daude:

- Bitarteko izanda sortutako primak: prima horien definizioa 2.1 ereduaren azalpenean dago
- Primen ehunekoa: ez-bizitzako adarren guztizkoarekiko adar bakoitzari dagokion ehunekoa da. Ez dator bat komisio-ehunekoarekin.
- Sortutako komisioak: ez-bizitzaren adar bakoitzean bitarteko izanda sortutako primen bolumenarengatik sortutako komisioak izango dira, ezeztapenetatik garbi. Beste artekari baten zuzendaritzapean garatutako jardueretatik jasotako komisioak ez dira sartuko.

- Ordainsari profesionalak: bezeroari zuzenean eta faktura independentean fakturatutakoak. Ordainsari profesional horiek ezin direnean adarren arabera banatu eta justifikatuta badago, egozpen arrazoizkoa, objektiboa eta denboran iraunkorra den irizpide bat hartu ahal izango da.

2.3 ereduan bititza-zorroaren xehetasunak daude, bititza indibiduala eta bititza-aseguru kolektiboa bereiziz. Produktu bat sailkatzeko zalantza izanez gero, erantzuna aseguru- etxeak emango du.

2.2 ereduaz azaldutako kontzeptuak eta betetzeko modua 2.3 ereduari aplikatu dakizkioke, ez bititza adarrak bititza-adarrekin ordeztuz.

OSO GARRANTZITSUA: 2.3 eredu honetako BIZITZA Negozioaren Bolumena, Guztira taulako Bitarteko Izanda Sortutako Primen zenbatekoa eta 2.2 ereduko EZ-BIZITZA Negozioaren Bolumena, Guztira taulako Bitarteko Izanda Sortutako Primen zenbatekoa aplikazioak batugai gisa hartzen ditu, 2.1 ereduko Negozioaren Bolumena, Guztira taulako Bitarteko Izanda Sortutako Primen guztizkoa lortzeko. Eragiketa berdina egiten da Produkzio Berriko bitarteko izanda sortutako primen zenbatekoei dagokienez.

3.1 eredua soilik aseguru-artekari pertsona fisikoek bete behar dute eta kontabilitate-datuak daude bertan. Bi taula ditu: lehenengoa, Inbertsioa/Balioa erantsiari buruzkoa eta bigarrena ekitaldiko Diru-sarrera/Gastuei buruzkoa.

Datu horiekin, aseguru-artekariak garatzen duten jardueraren analisi ekonomikoa egin ahal izango da eta gainera EUROSTATen errekerimenduak betetzeko balioko dute.

«Inbertsioa/Balio erantsia» 1. taulak soilik bi kontzeptu ditu, baina argi eta garbi zehaztu behar dira:

Balio erantsia faktoreen kostuari: EUROSTATEk eskatzen duen estatistika-datu bat da. Ustiapen-jardueren errenta gordina da ustiapeneko diru-laguntzak gehitu eta zeharkako zergak kendu ondoren.

Kalkulua honela egiten da:

POKren kodeak	Kontzeptua
---------------	------------

70 eta/edo 75	(+) Komizioak (beste artekari baten zuzendaritzapean garatutako jarduerarengatik jasotakoak izan ezik) (+) Ordainsari profesionalak
740	(+) Ustiapenerako diru-laguntza ofizialak administrazio publikoetatik jasoak (enplegu-sustapena, interesen hobariak, enpresa berriak)
752/759	(+) Beste diru-sarrera batzuk (ez dira sartzen diru-sarrera finantzarioak, soilik 752 eta 759 kontuak)
60	(-) Erosketak (inbentarioan jaso ezin diren ondasun kontsumigarriak: paper-gauzak, bulegoko materiala...)
62	(-) Kanpoko zerbitzuak (publizitatea, laguntzaile eta beste artekariari lagatutako komizioak, zerga, lan eta kontabilitateko aholkularitza, aseguru-primak, alokairuak, ur, gas, elektrizitate, telefonoko hornidurak, garraioa, banku-zerbitzuak eta mezularitza) guztizko
631	(-) Beste tributu batzuk (OHZ, JEZ, OEZ eta EJD, tasak eta zeharkako bestelako zergak)
BALIO ERANTSIA FAKTOREEN KOSTUARI, GUZTIRA	

Ondasun materialetan eginiko inbertsio gordina: Urte batetik gorako bitzita baliagarria duten kapital materialen ondasunak sartzen dira. Inbertsioak erosketa-prezioan balioesten dira, baita erosketari atxikitako gastu guztiak eta gordinak ere, hau da, balio-egokitzapenak egin baino lehen eta lagapenekin lortutako errenta kendu baino lehen.

Kapital-ondasunen bitzita erabilgarria luzatzen duten edo gaitasun produktiboa areagotzen duten gehikuntza, eraberritze, hobekuntza eta berrikuntza guztiak sartzen dira balioaren barnean. Kanpoan gelditzen dira, mantentze-kostuak, kapital alokatu eta finantza-errentamenduko ondasunetako balioa eta gastua, aktibo immaterial eta finantzarioetako inbertsioa.

Ondasun materialetako inbertsio gordina soilik banaketa-jarduerari dagokio. Horregatik, ondasun material berdinak erabiltzen dituzten hainbat jarduera badaude, banaketa-jarduerari dagokion zati proportzionala sartuko da soilik, jarduera bakoitzaren arabera sortutako diru-sarreraren arabera.

banaketa-jardueraren ondasun materialetako inbertsio gordina =

Jarduera guztien inbertsio gordina X banaketa-jardueren diru-sarrerak

Jarduera guztien diru-sarrerak

2. taula «Ekitaldiko diru-sarrerak eta gastuak»

1. Ekitaldiko diru-sarrerak

Negoio-zifraren zenbateko garbia:

a) banaketa-jarduerari dagozkionak:

a.1) Jasotako komisioak: aseguru-etxe/berraseguruenak, beren zenbateko osoarekin adieraziko direnak.

a.2) Ordainsari profesionalak: bezeroari zuzenean fakturatzen zaizkionak faktura independentean eta aseguru-etxe/berraseguruenak jaulkitako primaren egiaztagiriarekiko modu berezian.

b) Gainerako jarduerak:

Banaketa-jardueraz bestelako jarduerak egiteagatik lortutako diru-sarreraren zenbatekoa jasoko da.

Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk:

a) Banaketa-jarduerari dagozkionak:

Hemen, bestelako aseguru-artekari edo artekaritza-sozietateetatik jasotako komisioak sartuko dira (produktu jakin batzuen banaketa-jarduerak egiteagatik, artekari edo sozietate horren zuzendaritzapean), baita banaketa-jarduerarekin erlazionatuta dauden eta jaso diren diru-laguntzak ere.

b) Gainerako jarduerak:

Banaketa-jardueraz bestelakoak diren eta negozio-zifraren zenbateko garbian kokatu ez diren jarduerak egiteagatik lortutako diru-sarreraren zenbatekoak jasoko da.

Diru-sarrera finantzarioak:

a) Banaketa-jarduerari dagozkionak:

Banaketa-jardueratik eratorritako diru-sarrera finantzarioak.

b) Gainerako jarduerak:

Banaketa-jardueraz bestelako jardueratik eratorritako diru-laguntza finantzarioak.

2. Ekitaldiko gastuak

Langile-gastuak:

a) Banaketa-jarduerari dagozkionak:

Hemen sartuko dira:

- Langileen kostuak eskudirutan edo jenerotan: Ordainsari eta soldaten zenbatekoa; gizarte-segurantza enpresaren kontura; beste gastu sozial batzuk; baita langileari ordaindutako edozein ordainsari ere (esaterako, kalte-ordainak). Gastu horiek banaketa-jarduerari dagozkion baliabide pertsonalekin egin behar dute bat.
- Kanpoko laguntzaileei ordaindutako komisioak: Zenbateko osoarekin zenbatuko dira.
- Beste aseguru-/berraseguru-banatzaille batzuei ordaindutako komisioak: Zenbateko osoarekin zenbatuko dira.

b) Gainerako jarduerak:

Banaketa-jarduerari ez dagozkion baliabide pertsonala dela eta, eskudirutan edo jenerotan egindako kostuak sartuko dira.

Ustiapeneko beste gastu batzuk:

a) Banaketa-jarduerari dagozkionak:

Hemen sartuko dira:

- Etengabeko prestakuntzaren gastuak banaketa-jarduera garatzearen ondorioz.
- Inbentarioan jaso ezin diren (paper-gauzak, bulegoko materiala) ondasun kontsumigarriengatikoko gastuak (publizitatea; zerga, lan, kontabilitateko aholkularitza; aseguru-primak; alokairuak; ur, gas, elektrizitate, telefonoko hornidurak; garraioa; mezularitza) guztizko zenbatekoaren arabera, BEZa barne. Ez dira amortizazioetarako zuzkidurak sartuko. Gastu horietako baten bat, banaketa-jardueraz gain, beste jarduera batzuei egotz badaiteke, banaketa-jarduera horri dagokion zati proportzionala zenbatuko da soilik.
- Beste tributu batzuk: banaketa-jardueraren JEZ sartuko da.

b) Gainerako jarduerak:

Kontzeptu honetan kokatutako baina banaketa-jardueraz bestelako jarduerak egitearen ondoriozkoak ez diren gastuak sartuko dira.

Finantza-gastuak:

a) Banaketa-jarduerari dagozkionak:

Banaketa-jardueratik eratorritako gastu finantzarioak sartuko dira. Puntu honetan sartu banaketa-jardueratik eratorritako «Banku-zerbitzuak eta antzekoak» kontuaren (626) zenbatekoa.

b) Gainerako jarduerak:

Banaketa-jardueraz bestelako jardueratik eratorritako gastu finantzarioak sartuko dira.

Jarduera(r)en emaitza(k): Ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen arteko aldearen emaitza izango da.

3.2 eredua soilik bete behar dute aseguru-artekaritzaren sozietateek eta berraseguru-artekaritzaren sozietateek. Bi taula ditu: lehenengoa, Inbertsioa/Balioa erantsiari buruzkoa eta bigarrena ekitaldiko Galera eta Irabazien Kontu Laburtuari buruzkoa.

«Inbertsioa/Balio erantsia» lehenengo taula betetzeko 3.1. ereduan deskribatutako kontzeptuak aplikatu daitezke.

Ekitaldiko «Galera eta Irabazien Kontua Laburtua» bigarren taula azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako kontabilitate-plan orokorrak eskatutakoaren antzekoa da. Aldea da zenbait partida edo epigrafeen xehakapen bat egiten dela, eta bereizketa hau egingo da: banaketa-jarduerari dagozkionak eta gainerako jarduerak.

"Banaketa-jarduerari lotutakoak" dira otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 129. artikuluan definitutako banaketa-jarduera egin izanaren ondorioz aseguru- edo berraseguru-artekaritzako sozietate gisa lortutako edo sortutako diru-sarrerak eta gastuak.

Eta «gainerako jardueretan» lortu diren edo aseguru- edo berraseguru-bitartekaritza bestelako jarduerak egitearen ondorioz sortu diren diru-sarrera eta gastuak sartuko dira.

Aurrez adierazitako xehakapena sortzen den kontu horretako epigrafeak hauek dira:

1. Negozio-zifraren zenbateko garbia.
5. Ustiapeneko beste diru- sarrera batzuk
6. Langileen gastuak
7. Ustiapeneko beste gastu batzuk

Epigrafe horien eduki eta definizioari dagokienez, 3.1 ereduko «Ekitaldiko diru-sarrerak eta gastuak» 2. taulan adierazitakoa aplikatu beharko da.

3.3 eredua soilik bete behar dute aseguru-artekaritzako sozietateek eta berraseguru-artekaritzako sozietateek eta ekitaldi amaierako balantze laburtuari buruzkoa da.

Eredu honetan aseguru-artekaritzako sozietateek eta berraseguru-artekaritzako sozietateen ekitaldi amaierako balantze laburtua eskatzen da. Kontabilitate-plan orokorra 1514/2007 Errege Dekretuak eskatzen duenaren berdina da.

Oharra: EKD betetzean, aseguru-banatzailen EKD izapidetzeko prestatutako aplikazio informatikoan sartutako baliozkotze hauek hartu behar dira kontuan:

1-PERTSONA JURIDIKOEN ASEGURU-ARTEKARIAK

1- EKDren 3.3 ereduan balidazio bat sartu da eta horri jarraikiz, «AKTIBOA, GUZTIRA (A+B)» eremuko zenbatekoak «ONDARE GARBI ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+B+C)»

eremuko zenbatekoaren berdina izan behar du.

2- EKDren 3.2 ereduko galera eta irabazien kontu laburtuen 6, 7, eta 8. epigrafeetako kontuetan esleitutako zenbatekoak zeinu negatiboarekin sartu behar dira.

3- EKDren 3.2 ereduaren galera eta irabazien kontu laburtuetako «1.a.1) Jasotako komisioak» kontuan edo «1.a.2) Ordainsari profesionalak» kontuan zenbatekoak sartu badira, nahitaez bete behar da «Balio erantsia kalkulatzea faktoreen kostuari» ereduaren

«Komisioak (+)» kontua.

2-PERTSONA FISIKOEN ASEGURU-ARTEKARIAK

1- EKDren 3.1 ereduko «EKITALDIKO DIRU-SARRERA ETA GASTUAK» ataleko «a.1)

Jasotako komisiok» kontuan edo «a.2) Ordainsari profesionalak» kontuan zenbatekoak sartu badira, nahitaez bete behar da «Balio erantsia kalkulatzea faktoreen kostuari» ereduaren «Komisiok (+)» kontua.

3-PERTSONA JURIDIKOEN ASEGURU-AGENTEAK

1- EKDren 3. ereduko «1. ASEGURU-BANAKETAREN JARDUERAREN DIRU-SARRERAK» ataleko «Aseguru-etxeetatik jasotako komisiok» kontuan zenbatekoak sartu badira, nahitaez bete behar da «Balio erantsia kalkulatzea faktoreen kostuari» ereduaren «Komisiok (+)» kontua.

4-PERTSONA FISIKOEN ASEGURU-AGENTEAK

1- KEDren 3. ereduko «1. ASEGURU-BANAKETAREN JARDUERAREN DIRU-SARRERAK» ataleko «Aseguru-etxeetatik jasotako komisiok» kontuan zenbatekoak sartu badira, nahitaez bete behar da «Balio erantsia kalkulatzea faktoreen kostuari» ereduaren «Komisiok (+)» kontua.

Azkenik eta 4 bitartekaritza motentzat, «ERAKUNDEAREN EGITURA» 1. Ereduko lehenengo ataleko «Baliabide pertsonalei» dagokien «banaketa-jarduerari dagozkionak» zutabeko Guztira eremuan adierazten den zenbatekoak izan behar du «banaketa-jarduerari dagozkion baliabide pertsonalak» ataleko aurretiazko prestakuntzari buruzko zutabeko Guztira eremuan agertzen den zenbatekoa baino handiagoa edo horren berdina.